



KATEBEGIA

Politikaren eta literaturaren (h)egian



Hasiera » (A)iruzkin literarioak » *Déjà vu* edo zaharrak berri

ABU
17

Déjà vu edo zaharrak berri

Atalak: (A)iruzkin literarioak

0



Gorrotxategiren laugarren nobela da.



Idazlea nobelaren aurkezpen egunean, Donostian.

Koldar hutsa zara
Aritz Gorrotxategi
Erein

Koldar hutsa zara belaunaldi-arteko nobela da, giza kolektibo baten bizialdia kontatzen duena, nobela korala

deitua. *Gu* baten istorioa *Ni*batek kontatua. Peru da narratzailea, protagonista nagusia. Koadrila da ezaugarri behinena: Lukas, Garraiz, Garazi, Belatza, Joana... Taberna bat: Krapula. Hiri bat: Donostia.

MIKELASURMENDI

1958an jaioa. Zumarragarra eta urretxuarra, nahiz batzuentzat ezinezko bitasuna izan. **ARGIA**ko **kazetaria**. Politika esparrutik literatura eremura doan jendarteko gaiak jorratzen ditut normalean, Hendaia munduaren epizentroa izaki.

Jarraitu @masurmendi
@masurmendi(r)en Txioak

Bilatu:

Bilatu

KATEGORIAK

Auzoak: Gros, Amara... Institutua, fakultatea, unibertsitatea... Protagonistak hiriko kumeak dira, burges txikiak. Aberaskumeak osoro izan barik, jendartea iraultzeko nahikariak edota ezaugarri "aproposak" biltzen dituztenak. Familiaren erretratua ere egiten du Peruk.

70eko hamarraldikoak diren aldetik, trantsizio garaian jaiotakoak dira protagonistak. Istorioaren ezaugarriak imajina errazak dituzu. Garaian garaiko manifestazioak eta erreboltak. Halaber, eta beste era batez esanda, euskaldun guztiok "amerikano" bat familian dugun bezala, euskaldun guztiok badugu ere senitarteko bat jazarria frankismoan, diktaduraren aurka borrokatua, edota baita haren aldekoa edo aliatua. Familia eta jendartea ez baita zuri-beltza, poliedrikoa baizik. Dena dela ere, nobelako gazteak frankismoaren aurka jardun zutenen ondorengoak dira bereziki: Saul dugu pertsona horietako bat, bereziena. 1936ko garaikoak ere badaude: aitaren aldetiko aitona, amaren aldetik osaba. Behialako mitoen ekarleak dira, iraganekoen balentrien ispilua, egungo helburu utopikoen elikatzaileak.

Iragan mendeko pentsalari, filosofo, poeta eta iraultzaileak aipatuak dira nobelan, edota haien aipuak dira nobelan txertatuak. Protagonistak *urbanitak* dira, kasuon eta nolabait izendatu aldera: *ñoñostiarak*. Nobelak belaunaldi baten ia ezaugarri guztiak jasotzen dituenez, jendartearen ezaugarriak –eta berau osatzen dituen ezaugarri politiko sozialak– gaingiroki baino ez dira garatuak. Nobela korala edo masa-jendarte baten isla da. Esate baterako, futbolak badu bere presentzia, doi-doia aipatua baino ez bada.

Protagonistak erlijioari uko egiten dioten belaunaldi bateko kumeak dira, baina bestelako ideologiez eta hauen dogmez "ederki" zipriztinduta daude: "drogak" libre nahi dituzte eta bikote harremanak aske. Joera sexual berrien garaia da, homosexualitatea azaleratzen/kaleratzen hasia. Aldarrikapen *pogre* parrasta egiten duen belaunaldia da, bestelakoa da baina, euren asimilatzea. Bestelako da, taldekidearekiko begirunea, hots, arerioarekiko ezberdintasuna ez da aniztasunaren ezaugarria. Tira, etsaiarekiko kontrakotasuna garatuko balitz, gaitz-erdi. Alegia, bestelakoa da etsaiak – nazismoak, frankismoak edo fanatismoak– txertatutako keriez libre izatea.

Peru protagonistak mito zaharretatik eta ortodoxia berrietatik libre bizi nahi du. "Artaldetik atera nahi du", esaldi topikoa erabiliz. Kuttuna duen Nietzsche-ren ildoan "supergizakia" osatzeko bidea urratu nahi du. Peruk, besteak beste, idazle izan nahi du. Kontraesan eta miseria txikiak agertzeko ofizio paregabea. Lurreko loria bilatze bidean, frustraziorako abagunea erdiesteko jarduera inola ere. Izan ere, beti dago koadrilan zu baino iaioagoa dena. Peru ez da Aritz

- ▶ (A) iruzkin literarioak
- ▶ (B) literatura
- ▶ (C) politika
- ▶ (D) kulturgintza
- ▶ (E) gizartea
- ▶ (H) endaika
- ▶ Antzerkia
- ▶ Artea
- ▶ Azpiegiturak
- ▶ Bertsolaritza
- ▶ Dantza
- ▶ Ekonomia
- ▶ Energia
- ▶ Erlijioa
- ▶ Euskara
- ▶ Hedabideak
- ▶ Hezkuntza
- ▶ Historia
- ▶ Hizkuntzak
- ▶ Jaiak
- ▶ Kirola
- ▶ Musika
- ▶ Natura
- ▶ Nazioartea
- ▶ Osasuna
- ▶ Politika saioak
- ▶ Sailkatugabeak

Gorrotxategiren *alter ego*a, baina haren bizialdian gorpuztutako pertsonaia bada neurri batean. Ez alferrik, biak ala biak, idazleak baitira. Dena den, Peru ez da inoren *nîa*, bere *nîa* ez baita guztiz ber(e)a. Izan ere, inor ez da berak bere buruaz proiektatzen duena.

Euskal gatazka poliedrikoaren errelato moduko bat osatu du Gorrotxategi

idazleak. Bi partetan emana. Lehenean "(h)artalde"ren ahotsa jaso du, protagonistaren bilakaera eskaintzen du bigarrenean. Ordurako, Peruk bikotea dauka. Maitane izena du, eta badauka ere amorantea: Elene.

Nire gusturago, nobela sendoagoa izateko, *déjà vu – déjà dit* narrazioan – sobera darabil nobelagileak. Halaber, apika, sendoagoa izateko trama jarraikorrago bat behar luke. Bigarren parteak ematen dio zentzua nobela osoari, naski.

Idazle helburu duen irakasle zapuztuaren ondorioa ekarri aldera: iraultzaz iraultza, gizakiaren ezaugarria posesiboa gailentzen da betiere, kasuon gizonena, gizona baita protagonista. Nietzschen asmoak lortzetik urrun, posesiboa izateak are koldarragoa izatea dakarkigu. *Koldar hutsa zara* autokritikara deitzen duen nobela da. Euskaldunon iragan berria ezagutzeko protagonisten adineko seme-alabentzako iniazioiko nobela aproposa. Ez dezatela esan, "ez dugu gurasoon *déjà vécu* berriro bizi!". *Déjà vu* edo zaharrak berri.



Iruzkina idatzi

Zure e-posta helbidea ez da argitaratuko. Beharrezko eremuak * markatuta daude

Izena *

- ▶ Zientzia eta teknologia
- ▶ Zinema

AZKEN BIDALKETAK

- ▶ Ez da sekula berant!
- ▶ Déjà vu edo zaharrak berri
- ▶ Back to back
- ▶ Denbora bere lekura, hitza eginkizun
- ▶ Koldo Izagirre, gizonetzko (elipsia) bat

IRUZKIN BERRIAK

- ▶ Norastorgarlensiu(e)k
Memoriaz II (Gabriel Arestiren omenez) bidalketan
- ▶ Mikel Asurmendi(e)k Now!
Happy new year bidalketan
- ▶ patxi gaztelumendi(e)k Now!
Happy new year bidalketan
- ▶ Mikel Asurmendi(e)k
Memoriaz II (Gabriel Arestiren omenez) bidalketan
- ▶ Vicent Gil de Paules Balda(e)k
Memoriaz II (Gabriel Arestiren omenez) bidalketan

E-posta *

Webgunea

Iruzkina

Ondorengo XHTML etiketa eta atributuak erabil ditzakezu: <abbr title="">
<acronym title=""> <blockquote cite=""> <cite> <code> <del datetime="">
<i> <q cite=""> <s> <strike>

Bidali >

ARGIAko Blogarien Komunitatea - CC-BY-SA